

Liburutegiaren Eguna ospatzeko hainbat jardunaldi izango dira hirian

Donostia Kultura eta Tabakalera elkartu dira, eta hurrei zuzendutako irakurketa kluba antolatu dute

Iristear da Liburutegiaren Eguna, bihar izango baita, urriaren 24ean. Horren harira, hainbat jarduera antolatu ditu Donostia Kulturak Tabakalerarekin elkarlanean. Helburua, liburutegien egoera orokorraren berri ematea da, eta euren funtzioak zein diren zehaztea. Argi utzi nahi dute liburutegiak hiritarren topaleku bihurtu direla, eta norberaren formakuntza hobetzeko lanabesa direla. Jardunaldien baitan, etxeko txikienei arreta berezia eskaini nahi izan diete. Hala, hurrei zuzendutako irakurketa klub bat prestatzea erabaki dute.

Juan Gomez Juradok Cuando la biblioteca cabe en un bolsillo izeneko mintegia eskainiko du gaur bertan, Okendo kultur etxean, 19:30ean. Bihar, berriz, Nieves Gonzalezek Bibliotecas y redes sociales: Son tiempos de productividad, no de publicidad izeneko mintegia zuzenduko du; Haur Liburutegi Nagusian, 9:30ean. Liburuzaintzako mintegia izango da, baina arratsaldean, Gonzalezek berak, El futuro del libro electronico es complicado hitzaldi irekia eskainiko du, Liburutegi Nagusian, 18:30ean. Asteazkenean ere, Judith Huegunek ipuin kontaketa egingo du Euskal Herriko kondairen inguruan; 3-5 urte arteko hurrei zuzendua egongo da, eta Okendo kultur etxean egingo dute, 18:00etan. Helduentzako ipuin kontaketa, berriz, Teresa Etxegaraik zuzenduko du, Leyendas de Euskal Herria izenburupean; bihar izango da, Okendon, 18:00etan.

Aurrez aipatu bezala, antolatzaileentzat ekimen aipagarriena haurrentzako antolatu duten mintegia edo irakurketa kluba da. Azarotik apirilera iraungo du eta 10-12 urte arteko 20 gaztetxok izango dute parte hartzeko aukera. Fernando Morillok zuzenduko du kluba, euskaraz izango da, eta doakoa. Gainera, partaideek irakurketa modernitatearekin lotu dezaten, tabletak erabiliko dituzte. Izen ematea haur liburutegia@donostia.org posta elektronikoan edo Haur Liburutegian bertan egin daiteke.